

Noaia !!



Patxi Perezekin dantzaldia
Udarregi Ikastolaren Egunean



Duela 30 urte Michelingo langileek
100 eguneko greba luzea egin zuten

LASARTE
autoeskola

☎ 943 36 27 93



Usurbil

**PLIS PLAS
TXALO TA JOLAS**

KALEXARREN
haur eskolako jangelan
PELLO ANORGA,
ipuin kontalaria
ekainak 3 • 17:00
4 urteetik gorako haurrentzat

Noaua!!

AGINAGAKO frontoian
KILIMISKA ANIMAZIO taldea.
"Jolas txokoak"
ekainak 10 • 17:00

HERRIKO frontoian
PIRRITX ETA PORROTX
ekainak 15 • 17:00



Lehiaketa

Pirritx eta Porrotx pailazoan disko berrienak!
Joan den urtean Euskal Herrian egindako 150 emanaldietan
100.000 pertsona baino gehiago erakarri zituen
Pirritx eta Porrotx taldeak. Duela hilabete gutxi,
"Maite zaitut" ikuskizuna surkeztu zuten.

Laster, Usurbilen izango dira berriz ere.

Ekainaren 15ean, Usurbilgo frontoian, arratsaldeko 17:00etan
hain zuzen. Bost egun lehenago, ekainaren 10ean,
"Maite zaitut" diskoaren ale bat zozketatuko dugu gure
irakurleen artean. Bidali e-posta bidez agur bero bat
pailazoari eta CD baten zozketan hartuko duzu parte.

Animo eta zorte on!



Bidali e-maila erredakzioa@noaua.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL(Gipuzkoa).

Badok Amairu !!

Imanol Mujika: "Maitatua ez sentitzeari diot beldurra"

Imanol Mujika biltegi batean dabil lanean, eta bertan denetik egiten du: kamioian, ordenagailuan eta soldatzen aritzen da. Sukaldea eta futbola ditu afizio, baina badu beste zaletasun berezi bat ere: zaldian ibiltzea.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Arraina.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Parranda.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Kotxeko edo motorreko giltzak.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Kale-txakur batean.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Maitatua ez sentitzeari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Nire aitona zena.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Ametsik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Ezingo nuke bat aukeratu.

9. LIBURU BAT.


Argiñanoren errezeta liburua.

10. FILM BAT.

"Brave Heart".

11. LEKU BAT.

Gustura sentitzen zaren edozein.



12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Kaxkoa.

13. URTARO BAT.

Udaberria.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

INGURUMEN NAZIOARTEKO EGUNA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

100 EGUNEKO GREBA HURA **8. OR.**

Duela 30 urte, Michelingo langileek 100 eguneko greba luzea egin zuten. Oihartzun handia izan zuen greba hark nazioarteko langile mugimenduan.



MARTIN ARREGIREKIN SOLASEAN **10. OR.**

IGANDE HONETAN IKASTOLAREN EGUNA **13. OR.**

DENBORAPASA **14. OR.**

IZERDI PATSETAN, KIROLARIEN TARTEA **15. OR.**

AGENDA: DEIALDIAK, EKITALDIAK... **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



ARITZ GORRITI

Udako trikimailuak

Bainujantzi operazioa, irteera operazioa, itzulerakoa, beltzarana jartzearena... Uda parteari begira egiten diren ahaleginak dira. Horietako asko pertsona ugariaren buruhauste bihurtu izan ohi dira. Batzuetan norbere kontuak izan ohi dira; besteetan, ordea, inguruneak bultzatuta egin izan ohi diren gauzak. Zer da ba oporrik gabeko uda? Edota hondartzarik gabekoa? Eta festarik gabekoa?. Askok udako oporretan atzerrira ote goazen galdetzeko ohitura izaten dugu. Kiroldegiekin urtean zehar baino herritar gehiago jasotzen dituzte garai honetan. Uda garaiari begira egiten diren sakrifizio batzuk baino ez dira; sakrifizio fisikoak edota poltsikoari dagozkionak.

Batzuetan oporretara joatea "derrigorrezkoa" dela dirudi eta ez norberagatik, tradizio bati buruz ari baikara. Eta joan egiten gara. Horri buruz pentsatzen hasita, Etxebestetarrez akordatu naiz; haiek egin behar izan zutenaz gogoratu naiz (hori bai, fikzioan, Aupa Etxebeste! filmean). Herri bateko alkateak eta bere sendiak kanpora joan behar zutela herrian zabaldu eta... oporretarako

dirurik ez!. Herritarren aurrean "lotsagarri" ez gelditzeagatik, maletak prestatu eta herritarrei agur eginez herritik kanpora doaz. Gauean, inork ikusi gabe, ezkutuan, etxera itzultzen dira eta bertan igarotzen dituzte kanpoan pasa beharreko egunak. Horrek buruhauste ugari sortzen dizkie baina, azkenean, haien amarruak nahi bezala amaitzen dira. Oporraldia igarota, itxuraz kanpotik herrira itzuli eta bizilagunek ongi etorri ofiziala ere egiten diete.

Filma ikusi ez duzuenok, ez pentsatu orain kontatutakoarekin ikusteak merezi ez duenik. Aukera baduzue, ikus ezazue. Umorea eta kritika biak nahasten ditu. Itxurak ondo gordetzen jakiteko edozein instrukzio liburu baino hobea da. Oporrei begira edonork eskura duen beste aukera izan daiteke. Merkea eta fantasiakoa. Itxurak egiten ibiltzeko joku aldrebesa. Trikimailuz betea, baina oporrak igarotzeko beste modu bat. Gero, norberak erabaki dezala uda honetan zer egin. Nahi duzuen bezala, ondo pasa uda!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika !!

Politiko piromanoak: nahikoa da!

NOAUAN erraustegiei buruzko erreferendumaz agintariari egindako inkestan, betikoa: nor eta Usurbilgo "alkatea" demokrazia lezioak ematen, "gizarte honek eredu demokratiko eta instituzional bat onartua du hiritarren gehiengo oso zabalak onartua" dio Luixmaik, jasotako botoei esker ez baizik eta lege faszista eta epaitegi baten erabakiari esker alkate aulkia berotzen duenak. "Lau urtetik behin herri kontsultak egiten dira -hauteskundeak-". To. Herri kontsulta ez da hauteskunde, motel. Hauteskudean ordezkari batzuk hautatzen dira, gero segun haizeak nondik jotzen dien, komeni zaiena egiteko. Erraustegiak ez zuden zuen hauteskunde programetan, Lixtomai. Beraz, ziria sartu diguzue.

Plan Alternatiboan dagoenetik, ezin duzue esan alternatibarik ez dagoela, herritarrei burla egitea baita. Defendatzen duzuen PIGRUG hori, sektorean interes enpresarialak dituen batek egina da, makilaje "europar" pixka batekin. Birziklatu, gutxitu, konpostatu egingo duzuela eta hondakin errekupe-raezinak erreko dituzuela ez du zuen itzallak ere sinisten. Esazue, hondakin errekupe-raezin horiek ZEINTZUK diren eta ZENBAT diren. Inork ez digu argitu oraindik.

Krokodilo malkoak jasan behar gainera: "erabaki zailak hartzeko ardura eta beharrenda dauden politiko desgastatuak", gaixoak. Araza irtenbidea emateko zuek zarete eta oztoporik handiena.

Jauregiberrik sikiera zerbait ongi esan du: "gizarteari egia guztia kontatu behar zaio". NORK esan behar digu guri egia, Lourdes? Ea ba hasten zareten. "Dauden soluzioen artean aukeratu, erraustegia edo zabortegia" dio. Andrea, soluzio serio eta iraunkorrak behar ditugu, eta metodo horietako asko Plan Alternatiboan daukazu. Ez duzu irakurri ere egin (zuen obligazioa den arren), izan ere, erraustegirik ez dago zabortegirik gabe, eta zaborra modu inpunean sortzen segitzen den artean, arduraz sailkatu eta birziklatzen ez den artean, zabortegiak egongo dira. Engainurik ez. Agintariak zarete soluzioa nahi ez duzuen bakarrak: ez duzue nahi zaborra ongi sailkatzeko mediorik jarri, ez duzue nahi zerga politika efikazik jarri, ez duzue nahi organikoa ongi bildu, ez duzue nahi birziklatzeko mediorik jarri, ez duzue nahi zaborra gutxitzeko politika serioirik egin... hau dena politikarien esku dago.

Michelena (sic) txapeldunari zer esan? "Energia berreskuratzen duen errausketa sis-

tema, zaborra ezabatzeko teknologia da, birziklatzea eta konpostajearen osagarri izan behar duena" dio. Baina gizona, zaborra ez da ezabatzen, transformatu baizik. Nola liteke askoz lehenagotik dozena bat erraustegi ez izatea? Zenbat eta zabor gehiago sortu eta erre, energia gehiago! Argiaren faktura jaitsiko da? Ejem, zein planetatik erori zara zu? Erraustea energia xahutzea da, birziklatu daitezkeen material baliotsuak erre nahi baitituzue, gero berrituz fabrikatu beharko direnak. Eta hori energia errekupe-ratu ez, alferrik botatzea da. Gainera zuen erraustegiak gasoil edo gasa beharko du: energia galera gehiago. "Erreferendum eskaerak ez du zentzurik herritarrek instituzioekiko duten konfiantza ahulduko lukeelako" dio. Horrelako agintari ezjakinekin nork eduki lezake konfiantza?

Enfin. Ez du merezi zuen pitokeriak irakurtzea. Ez ezazue idatzi honi erantzuteko molestiarik hartu; erabili lanorduek gizartea entzun eta arazoak konpontzeko medioak jartzen. Beno, arazoak ez sortzearekin baka-rik ere, konformatuko ginatke.

Muskilda Tellabide

Euskararen erabilera sustatzeko hainbat kanpaina jarri dira martxan Buruntzaldean

Hernani, Astigarraga eta Usurbilgo Euskara zinegotziek Buruntzaldean martxan jarri dituzten hiru kanpainen berri eman zuten lehengo astean Usurbilgo Udaletxean.

Alde batetik, ileapaindegietan euskaraz hitz egiteko helburuarekin, Buruntzaldeko udalerrietako 77 ileapaindegitan (ileapaindegi guztien %85) hartutako neurriak azaldu zituzten: euskarazko aldizkarien harpidetza, prezio zerrenden itzulpenak... Gainera, "Eska ezazu orrazteko euskaraz" liburuxkaren 9.000 ale banatuko dituzte (estetika gomendioak eta trukuak jasotzen ditu liburuxkak, euskaraz).

Fruta-dendetan errezetak banatuko dituzte laster

Txema Merkado Hernaniko zinegotziak azaldu zuenez, garrantzitsua iruditu zaie ileapaindegietan euskara sustatzea "bilgune eta hitz egiteko toki ere badirelako", esan zuen. Bestetik, eskualdeko 62 frutadende-



ERDIAN, IBON BERISTAIN
USURBILGO EUSKARA ZINEGOTZIA.

tan euskaraz idatzitako fruten errotuluak banatuko dituzte laster eta gainera liburuxka bat atera dute fruta bidez osatutako errezetekin, bezeroen artean banatzeko.

Errenta aitortpena euskaraz

Lehengo asteko agerraldian, Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek herritarrak gonbidatu zituzten errenta aitortpena euskaraz egiteko.

NEREA KORTA _____

Dirulaguntzak

Kultur elkarteek, bestelako kultur Kerakundeek eta norbanakoek herrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak aditzera eman berri ditu udalak. Laguntza hauek 2006 urtean zehar egingo diren jarduerak sustatzeko izango dira. Informazio gehiago udaletxean.

Santueneko jubilatuen taberna esleitzeko deialdia

Santueneko Gure Elkartea jubilatuen lokaleko tabernaren erabilera eta zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitzeko deialdia egin berri da. Lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago oraindik. Informazio gehiago udaletxean.

Kontribuzioa

Kontribuzioa borondatez ordaintzeko epea maiatzaren 15ean hasi zen. Domiziliaturiko agiriak uztailaren 4an kargatuko dira.

Domiziliatu gabeko kasuetan, zergapekoaren helbide fiskalera igorri dira agiriak eta epea amaitu baino lehen, ordainketa Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Guipuzcoano banketxean agiri horiek aurkezturik egin beharko da.

Ika-mika !!

Beheran sinatzen dugun elkarteok honakoa adierazi nahi dugu, beste behin ere:

Aitzaga Elkarteak bere egoitzen itxiera salatuz igorri zigun atxikimendu orrian adierazten ziren puntu guztiak berresten ditugula:

1) Elkarteok, Espainiako Auzitegi Nazionalak Grande Marlaska epailearen ekimenez Aitzaga Elkarteak itxi izana ozenki salatzen dugula berresten dugu. Eta, bide batez, Aitzaga Elkarteak kideei gure elkartasuna adierazten diegu, bereziki, Madrilerak deklaratzera joan behar izan

Aitzagaren alde

zuten Koldo Lizaso, Arantxa Manterola eta Jexux Mari Errekondori.

2) Elkarteok, eskubide zibil eta politikoen defentsa egitearekin batera, Aitzaga bezalako herri proiektuen kriminalizazioarekin inora iristerik ez dagoela aldarrikatzen dugu beste behin ere.

3) Elkarteok aurrerantzean Aitzaga Elkartearen itxiera salatzeke antolatuko diren ekimenetan parte hartzeke deia egiten dugu.

Aginagako Jai Batzordea, Aginagako sozietatea, Akerra Gaztetxea, Andatzpe,

Arrate zaharren egoitza, Askatasuna, Batasuna, Beterri SUB, Bota Punttuba, Buztinzulo keramika taldea, Dantza taldea, EKT, Erle Lagunak, Erroizpe Elkarteak, Etxerat, Futbol taldea, Gure Artera Bilgunea, Gurtertz Zubietako Jai Batzordea, LAB, Mahaspildegia Elkarteak, Noaua! Kultur Elkarteak, Peña Pagola Elkarteak, Sagardo Egunaren Lagunak, San Estebango jai batzordea, Usurbilgo Herri Lan, Usurbilgo Kirol Elkarteak, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Pilota Elkarteak, 18/98 + taldea, eta Bordatxo, Ardi Beltz, Txirristra, Irrati, Zendoia, Benta, Txiriboga tabernak.

TXOKOALDE

IMANOL GOENAGA

Meta belarrak desagertzeaz ote?



Kaixo, berriz ere hemen aurkitzen gara auzoko kontuekin. Azken 25 urte hauetan bezala Sagardo Eguna pasa zaigu eta maiatza ere aurrera doa. Eguzkiak ere indar gehiago hartua dauka eta eguna luzatzen hasia da. Honekin batera auzoan ere jende gehiago ikusten dugu, paseatzen, korrika, txirindaz, eta palak hartutan frontoian dabilzanak.

Erriberan ere mugimendua hasia da, urtero bezala baratzetako lana egin beharra dago. Patata dagoeneko jarria izango da baina, arto, babarruna, baina eta bestelakoak ekarriko dituzte oraindik lanak.

Garai batean eguzkiaren indarrarekin batera, soroetan eta baserri inguruetan, metak perretxiuak bezala ateratzen ziren, hauek non nahi ikusi zitezkeelarik. Egun, gutxi batzuk ikusten dira baina, plastikoko beltzeko pilota erraldoiak nagusi dira, paisaia ere aldatzen doalarik.



Eskerrak oraindik baserriar batzuk ohiturei eusten dieten, eta ea meta egitea ez den galtzen. Hala ere, paisaiari baino abereei begiratu beharko genieke, eta eurei galdetu zein belar nahia go duten.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Musika, plazerra



Azkeneko hilabeteetan, eta bereziki Sutegi ireki azutenetik, aukera ugari izan dugu musika, beste hainbat ekitaldiren artean, entzuteko. Era ezberdinetako emanaldiak.

Lehenengo ostegunean bertan, eta hau ez zen Sutegin izan, elizan baizik, Soinurbil Musika astearen barruan, Juan Luis Atxagak organo emanaldia eskeini zuen. Jakingo duzue bi urteko tartean ez dugu berriz entzungo (konponketa lanak direla eta). Aldarean jarritako pantaila batean Juan Luisen behatz eta hanken mugimendua jarraitzen genuen bitartean, egitarau zabala eta jarraitzeko nahikoa atsegina eskaini zigun.

Musika aste honen barruan ere, emanaldi ugari antolatu dira Sutegin. Horietako bat, Pirineos Jazz Orkestrak eman zuena.

Bestalde eta orain dela hogeita bat egun, eta beste musika mota baten barruan, Juan Carlos Perezen kontzertuak arrakasta handia lortu zuen. Aretoa lepo zegoen, eta kanta berriak nahiz zaharrak entzuteko aukera izan genuen. Musika talde eder batekin aritu zen. Datorren uztailean Donostiara etorriko den Bob Dylanen estiloa gogorazari zidan.

Niretzat musika entzutea plazerra da, izan ere badu indar berezi bat gure barrua mugitzeko, barru barruan dauzkagun emozioak eta sentimenduak ateratzeko, irudimenarekin egan egiteko eta aldi berean momentua dastatzeko eta gozatzeko.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Udako giroa

Maiatzeko lore usainak aurrera egitearekin batera, udako giroa ere zabaltzen hasi da Usurbilen, gainontzeko lekuetan bezala.

Duela hilabete batzuk inor gutxi imajina zezakeen udako oporren giroa, epeltasuna eta lasaitasuna. Iritsi da ordea, gutako askorentzat, oporretaz gozatzeko momentua. Lan ugari egin ondoren eta azterketen txanpa jada bukatua dugula, batxiller lehenengoko ikasle asko oporretan gaude honez gero.

Orain, hainbeste aldiz amestutako opor horiekin topatzen garenean, zer egin ez dakigula geratzen gara batzuetan, etengabeko lana egin baitugu orainarte, eta bapatean, erabateko lasaitasuna etorri baitzaigu gaudetik egunera. Hala ere, ez dugu asperetzeko denborarik eduki, eguraldiak dexente lagundu baitugu eta hondartzara joateko aukera ere aurki izango baitugu.

Gainera, laister iritsiko dira herriko festak, eta baita gainontzeko lekuetakoak ere. Gutako bat baino gehiago egongo da San Joan eguna iristeko amorratzen, bertako sutan urte osoko lana erretzera botatzeko gogoz. Beste batzuk ordea, festetatik paso egin eta norabait joateko irrikitan egongo dira, urte osoko nekea alde batera utzi nahian. Guk gutxienez, irrikaz itzarongo ditugu festak, eta hauek etorri bitartean zain geratu beharko dugu.

Ondo ibili beraz eta oporretarako prestatzen hasi, konturatu ez arren muturraren parean baititugu!



ATXEGALDE

NEREA KORTA

Larbak agertu zirenekoa

Oxigenoa behar dugula badakigu. Herrian berdeguneak izatea ederra dela ere bai. Baina ez dugu horrela jarri beharrik, neska-mutilak. Badakit Amazonasa suntsitzen ari direla, baina nire etxe atzeko oihan hori gora eta gora doa, eta ez dakit inork gelditzerik izango duen.

Duela urte batzuk zume negarti bat genuen auzoan, erraldoia –edo nik hala ikusten nuen behintzat. Pinuak, loreak... ederki zegoen dena. Baina kalea berritu zutenean zumea desagertu zen, eta horren ordez zer izango zen ez genekien landaretxo batzuk landatu zituzten bertan.

Orain badakigu, bai. Kanabera erraldoi eta landare gorakariz bete zaigu etxe-atzea. Arazorik ez genuen ikusten hasieran, hala ere. Baina belartxo miragarri horiek nire leihoa pasa eta bigarrenean iristen hasi direnetik zomorro gehiegi dabil etxean.

Oihan tropikal bat ez dagokio Atxegalderi, eta oihanaren paketea datozen zomorroak ere ez gure etxeari. Intsektu ezberdinen bilduma egiten ari naiz nire gelan dauden apopilo berriekin, azkenekoan larba arraro batzuk agertu ziren sabaian. Ez didate gehiegi molestatzeko, baina nire xagua akabatu zuten. Eta orain oihana bera jaten ari dira. Argi ibili, atxegaldetarrok: izurrite bat datorkigu.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Sagardoak batzen gaituenean



Agian errepikatzea izango da, baina nire austeaz esan beharra dago. Bai asmatu duzue; hainbat ikastaro aurrera doaz. Bai josten, bai makilatzen, haurrak margotzen... Baina arrakasta itzela izan duen ikastaroa 2 eta 9 hilabete bitarteko haurrentzako masajea izan da. Lehenbiziko egunetik ikusmina sortu zuen, amak haurrekin gela betetzen hasi ziren eta denak oso gustora amaitzen dute. Dirudienez bai haurrentzat eta bai amentzat oso aberasgarria da, hortan ez dut dudarik.

Argazki lehiaketa ere izan dugu, hau ere haur eta gazteentzat izan da. Plis Plas Txalo eta Jolas zikloaren barnean berriz karaokea izan dugu pasa den astebukaeran.

Baina urtero harritzen nauena Sagardo Eguna da. Festa ederri izan dugu aurten ere, sagardo, musika eta lagun zaharrak ere bai. Baina, harrigarria da nola kanpoko jendea hurbiltzen zaigun eta horietatik batzuk garai batean auzokide izandakoak. Urte guztian ez dira azaltzen baina egun honetan frontoi inguruan topatzen ditut eta egia esateko, poza hartzen dut ikustean. Gutxienez, aitzaki horrekin elkar ikusten garela, sagardoaren inguruan eta ederki pasatzen dugu.

Agian gure politikoez sagardo gehiago edan beharko lukete.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Festak



Egun garrantzitsua izaten da Sagardo Eguna Usurbilen. Askok izaten dugu urduritasun hori, ilusioa edo irrika hori, gure egun handi horren zain. Eta behin Sagardo Eguna pasatzean, pixkanaka-pixkanaka gure herriko jai ezberdinak ospatzen ditugu.

Ni San Estebangoa naiz, bertako jai batzordekoa eta ezin uka dezakegu gure kaxko honek baduela xarma berezi bat. Hau da daukauguna: plaza, parkea eta aurreko eta atzeko tabernak. Ez dago besterik eta hori da gure auzoko festak berezi egiten dituen.

Festak, nahikoa antolatua dauzkagu. Otsailen hasi ginen bilerak egiten eta ez da lan erraza izaten.

Festak ere, beste gauza asko bezala, aldatzen ari dira. Orokorrean, herri handietara, taberna asko dagoen lekuetara,... joateko ohitura ari da zabaltzen eta honen aurrean txiki geratzen gara gu.

Baina aurreko urteetako argazkiak ikusi, igarotako momentu onekin geratu eta beste gauza askok ematen dute indarra honetan jarraitzeko.

Nonbait ordea, kanpotik ikusi eta ez da oso erakargarri egiten jai batzordeko kidea izatea. Nik hemendik ideia berriak emateko dituen edozeini, momentu jakin batean laguntzeko prest dagoen edozeini, dei egingo nioke. Badakizue nortzuk garen eta lasai jo guregana.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Hurrengoan bai

Aginagan ez zaizkigu oraintxe ume eta Agazte asko geratzen, baina dauzkagunek tarteka-marteka albiste onak ere ekartzen dizkigute.

Soka-tira genuen orain dela gutxi arte gure herriko gazteek talde lanean egiten zuten kirola, baina hori ere joan zitzaigun. Hala ere, beti aurrera begiratu beharrean gaude, bestela tristurak jo eta bertan gelditzeko arriskua baitauekagu.



Lerro hauen ondoan jarri dugun argazki horretan dituzue Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan finalera iritsi zaizkigun bi aginagatar gazte hauek, Usurbilgo taldearen barruan jokatu zutenak, eskubaloian. Ezkerrean Xuban Zubiria eta eskubian Eñaut Pagola. Finala

Legazpiko Haztegi-La Salleren aurka galdu zuten 28 eta 20.

Eskertzekoa da, era berean, gazte hauen entrenatzaileek egin duten lan ederra, talde guztia oso gustora ibili baita denboraldi osoan. Beraz, zorionak taldeari eta, nola ez, Haritz Holgado eta Zuhaitz Lizaso entrenatzaileei.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Zer dute umeek buruan?

Ainhoa, Leire, Eneritz, Maialen, Ane, ... 9-11 urteko neskatok: Tenisa, futbola, gimnasia erritmikoa, cup-a, pala, futbola, txapelketa, atletismoa, lehiaketa, igeriketa, eskubaloia...

Julen, Eneko, Haritz, Txomin, Ander, Xabier, Beñat ... 8-11 urteko mutilak: Futbola, pilota, zesta, cup-a, judoa, futbola, ...

Eta gurasoak turismoa, gora eta behera, hara eta hona. Asteburu honetan, esate baterako: Donostia eta Usurbil (futbola), Hernani (pala), Senpere (zestoa), Azkoitia (igeriketa), Zumaia (eskubaloia) ... Eta beste hamaikatxo turismo aukera.

Umeek pozik bueltatzen dira, irabazten dutenean, eta kopetilun eta negarrez galtzerakoan. Ez ditu beste ezerk mugiarazten kirolak adina, umeak. Eta ia beste ezerk ez gaitu horren urruti mugiarazten, gurasoak.

Ez da erraza umei erakustea beste mila gauza eder dagoela munduan: lanak ematen dizkigu gurasoei. Gutxitan ibiltzen gara jolasean umeekin, gutxitan hitz egiten haiekin. Horrela erraza da uste izatea mundua borobila dela ..., eta baloia irabazlearena.



100 eguneko greba hura

1976an Michelinen egindako grebak oihartzun handia izan zuen langile munduan

Duela 30 urte, Michelingo langileek 100 eguneko greba luzea egin zuten. Oihartzun handia izan zuen greba hark. 1976ko otsailean hasi eta maiatzean amaitu zen lanuzte hura liburu batean jasoa izan zen: “100 días de lucha frente a una multinacional”. Liburu honen pasarte esanguratsuenak bildu ditugu aste honetako erreportajearen.

Kontuan izan behar da garaiko giro eta egoera sozio-politikoak: Franco hil berria baina bere politikaren eragina bizirik; langile mugimendua erdi klandestinoa oraindik; eta, Michelin bezalako enpresa multinazionalak zuten boterea ahaztu gabe, baita maila politikoan ere. Adibide bat jartzearen, orduan 3.500 langile zituen enpresa horretan lan egin nahi zuenak “certificado de buena conducta” zelakoa aurkeztu behar zuten, aurreko lantokiak emandakoa edo, hori ezean, Guardia Zibilak berak emandakoa. Gainera, Lasarte-Oriako kuartelean aurkeztu beharra zeukan Michelinek hartzen zituen langileak ondo kontrolatuak egotea nahi izaten baitzuen.

1976ko maiatzaren 25ean amaitu zen 100 eguneko greba

Michelin lantegia multinazional bat izanik, bere interesak langileen aurretik jartzen zituen. Langileek, beren eskubide eta interesak errotik zapalduta ikusita, grebara jotzeko erabakia hartu zuten; greba, 1976ko otsailaren 16an hasi eta maiatzaren 25a arte luzatu zen.

Langileriaaren esplotazio handia, maila guztietakoa zen eta gainera, jardura sindikal libreak debekatuak zeuden. Mota honetako lantegiei, ahal den sindikatu gutxien eta ahulenak izatea komeni zaie. Arestian aipatu dugun liburuan, lantegi honi muns-

troa deitzen zioten. Garai hartan enpresa honek langileekiko zuen jarrera bildu zuten egileek: “Michelinek, bere asmoetarako toki aproposa aurkitu du espainiar estatuan; bertako erregimen politiko eta instituzionalak langileekiko jauntxokeri edo handinahizko jarrera hartzerakoan lagundu egin diete. Alde batetik, sindikatu libreak debekatuta izatea eta horien ordez langileen eskakizunak eta interesak kontrolatu eta txikiagotzeko (ez noski sustatzeko) sortutako aparatu bertikala, ondo baino hobeto datorkio Michelinek sindikatuekiko beti izan duen ezinikusiarri edo borondate txarrari. Bestalde, greba eskubidearen erabilera praktikoa ezezaguna izateak eta egitekotan kanporaketekin zigortzeko jarrera hartzea bat dator erabat multinazionalaren ildo errepresiboarekin (...).

Michelinek lege espainiarrak ematen dizkion ahalmenak era diskriminatzaile eta bidegabean aplikatzerakoan, nagusikerian jausten da. Estatu espainiarreko langileekin lege errepresiboak erabiltzen ditu, gainontzeko estatuetak langileekin baimentzen ez zaizkionak, errepresio hori ekintza sindikalean ari diren langileengana zuzentzen du bereziki”.

**“Langileen aldarrikapenak hurrengoak ziren: lantegia-
ren aldetik jasaten zituzten
errepresaliak amaitzea,
konbenioaren negoziazioa
eta Valladolid-eko lantegitik
bidalitako 16 langileak
berrituz onartzea”**

Beren ideien oinarri langileen arteko demokrazia, bakezko ekintza, negoziazioa eta elkartasuna ziren. Oinarri gehienak langileek beren aldetik bete-



100 EGUNeko GREBARI BURUZKO LIBURUAREN AZALA.

tzen zituzten baina oztopo nagusia negoziazioaren atalean zegoen, zuzendaritzak ez baitzuen negoziatorik egin nahi. “100 días de lucha frente a una multinacional” liburuak hala jasoa zuten: “Langileen artean Michelingo zuzendaritzak negoziazioaren aurrean amore emango ez zuenaren etsipena dago, nagusiak sakratu eta aldeztu den printzipiotik abiatzen baitira; enpresan zuzendariak erabakitzen du eta autoritatea ez da negoziagarria. Beraz, inoiz ez da benetako negoziatorik egiten, baizik eta bi aldeek ikuspuntuak azaltzeko bilerak egiten dira. Bat etorri gero edo langileria ordezkaritzak zuzendaritzaren proposamenak onartuz gero, akordioa ezartzen da; bestela, jakina da enpresak inoiz ez duela amore emango bere jarrerari dagokionez eta, azkenik, berak esandakoa nagusituko da”.

Greba hau ere luze-zabal jasoa zen beste liburu batean: “Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa 1973-2002” (NOAUA! Kultur Elkarteak / Errepresioaren Aurkako Taldea / Etxerat!, 2002).

Indar publikoen jazarpena, etengabea

Bi mila laurehun langile inguru izan ziren greba egin zutenak, dudarik gabe kopuru esanguratsua. Langileen batasunari esker soilik eraman ahal izan zen aurrera. 100 egunetan zehar 70 bat asanblada burutu zituzten, batzuk baimenduak, besteak baimendugabeak.

Lantegiaren aurrean eta kalean, Guardia Zibilaren presentzia izugarria zen baina kostatuta ahala kostatuta, biltzea zen helburua. Asanbladak egiteko nonahi biltzen ziren, elizetan, mendian...


Manifestaldi eta hitzaldi nahiz asanblada askotan, Guardia Zibilak istiluak sortarazten zituen, langileak

eta hauei elkartasuna adierazten zietenak ere, astindu eta atxilotuz.

“100 días de lucha frente a una multinacional” liburuxkak egun horietan bizitako gertaera asko bildu zituen. Bi pasarte hauek aukeratu ditugu:

“Otsailaren 23ko arratsaldean, indar publikoek era basatian astindu zuten langile bat. Klinika batera eraman behar izan genuen begia galtzeko arriskua zuelako”.

“Martxoaren 25ean, ostegunarekin, zazpi grebalari atxilotu zituen Guardia Zibilak lanetik irteteko unean enplegatu batzuk iraindu zituztela-eta. Kuarteletik igaro ostean, grebalari bat Donostiako erresidentzian ospitaleratu behar izan zuten”.



100 EGUNETAN ZEHAR 70 ASANBLADA EGIN ZIREN.

100 egunera, langileek lanera itzultzea erabaki zuten “batasuna mantendu eta barrutik borrokatzen jarraitzeko”


Grebak iraun zuen denboran, guztira 67 langile izan ziren kaleratuak Lasarte-Oriako lantegitik (Valladolid eta Aranda de Dueroko lantegietan ere izan ziren kaleratuak) eta hauen artean zazpi usurbildar zeuden: Constantino Galan Lopez, M^a Socorro Kamino Ubegun, Heliodoro Jorge Clemente, Gaspar Lerones Mayordomo, Juan I. Manterola Azpiroz, Eduardo Murua eta M^a Jesus Urkijo.

Greba hark oihartzun handia izan zuen, bai Euskal Herri mailan bai Espainiar estatuan nahiz Europan. Elkartasun adierazpenak, berriz, mota gutzietakoak izan ziren. Momentu har-

tan greban zeuden langileek, beste gauden artean hain beharrezkoa zuten laguntza ekonomikoa, alde ezberdinetatik lortu zuten: herritarrak, lantegi, taberna, denda, ikastola eta beste askok eskaini zieten laguntza.

“Lasarte-Usurbilgo ikastolak greban zeuden langileei ez zietela kobratuko erabaki zuen nahiz eta diru kontuetan beti defizita zuen entitatea izan. Gipuzkoan zehar jaialdi saioak eginez beteko zuen sortutako zulo hurra. Hasiera-hasieratik, elkartasun adierazpenak, ekonomikoak zein herrikoiak, ugariak izan ziren eta, batzuetan gainera, oso hunkigarriak”.

Gizarteko hainbat eragilek bitartekari lanak egin bazituen ere (Usurbil,



1976AN EGINIKO PEGATINA.

Urnieta eta Hernaniko alkateek; Gobernadore Zibilak berak...) enpresaren zuzendaritzak ez zuen negoziatu nahi izan. Azkenean, ehun egunera, langileek lanera itzultzea erabaki zuten, “batasuna mantendu eta barrutik borrokatzen jarraitzeko”.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

ITURGINTZA

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea

K/nagusia 14, © 943 362 725

Martin Arregi, EAEko Lurralde Antolamenduko zuzendaria

“Orografia menditsuak asko baldintzatzen du Gipuzkoaren ordenamendua”

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurralde Antolamendua sailean egiten du lan Martin Arregik. Berastegikoa jaiotzez, Usurbilen egin ditu urte asko. Gaur egun, EAEko Lurralde Antolamenduko zuzendaria da. Solasaldi mamitsu batean, arlo ugari hausnartzeko aukera eskaini digu Martin Arregik: etxebizitza, garraioa, Euskal Hiria...

NOAUA! Interneten, euskadi.net webgunean, zure departamenduari dagokion egitekoa honela definitzen da: “Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legean aurreikusitako lurraldea eta itsasertza antolatzeako instrumentuak prestatu eta izapidez Eusko Jaurlaritzaren eskumenen arloan, Jaurlaritzaren sailei egotzitako eskumenen kalterik gabe”. Zertan egiten duzu lan galdetzen dizutenean, zer erantzuten duzu? Esaldi hori ez, ezta?

Martin Arregi. Egia da, webgunean agertzen den definizio hori nahikoa zaila da. Lurralde antolamendua, azkenean, plangintza orokorra egitea da. Denok ezagutzen dugu udal plangintza, hirigintza departamenduaren bidez egiten dena, eta herriko plangintzarekin lotuta dagoena. Eskualde mailan zein erkidego mailan plangintza horiosatzea da gure ardura.

N. Beraz, beste administrazio batzuekin harremanetan izango zarete ia etengabe. Udalerri mailan agian ez, baina diputazioekin eta hiri handiekin behintzat bai.

M. A. Baita udalerri mailan ere, handiekin eta txikiekin. Gure lanaren %50, azkenean, udaletxeekin, diputazioekin eta talde sozialekin, ahal den moduan, lurralde mailako plangintzak aurrera ateratzea litzateke; ahal den



MARTIN ARREGI, LURRALDE ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA.

moduan, plan horiek ahalik eta kontsentsuatuena izatea.

N. Gipuzkoa lurralde oso menditsua da. Araba askoz ere lauagoa da. Ez dakit horrek eragin handia izango duen lurraldearen antolamenduan.

M. A. Horrek eragin handia du, sekulakoa. Gipuzkoa lurralde orekatua da. Sei eskualdeetan, Goierri, Tolosaldean, Donostialdean, Urolan eta baita Deba Garaian eta Deba Behean ere, denetan daude hiri batzuk, eskualdeko buru direnak. Eta hiri horiek entitatekoak dira, kasu batean Tolosa, bestean Beasain, bestean Zarautz... Hori da, adibidez, Araban ez daukaguna.

Araba, azkenean, makrozefaliaren eredu garbia da. Gasteiz da hiriburua nagusia. Gasteiz eta gero, hurrengo herria Laudio da. Eta Laudio nahiz eta ia 20.000 biztanle eduki, Bilbo aldera jotzen du gehiago, nahiz eta Araban egon. Gasteiztik gertuenetakoak Agurain eta Iruña Oka dira eta ez

dira ailegaten 5.000 biztanlera. Gipuzkoan, ordea, ezberdina da.

Orografia ere, Gipuzkoan ezberdina da guztiz. Mendiz josita, bailarak estuak dira eta bailara tartean beti ibaia edo erreka azaltzen da. Horrek dituen eragin guztiekin. Orografia menditsuak asko baldintzatzen du Gipuzkoaren antolakuntza.

Egia da, adibidez, aktibitate ekonomiko handiak ezartzekotan Arabak baldintza egokiagoak dauzkala, lur eremu handiagoak. Hori Gipuzkoan aurkitzea oso zaila da.

Paisaia aldetik, berriz, aberastasun handia dauka Gipuzkoak. Beraz, Arabatik Gipuzkoara zerbait ekarri beharko balitz, lautada pixka bat izango litzateke. Ze hemen, obra handiak egiterakoan, ingurumen aldetik inpartu handiko lanak egin behar izaten dira.

IMANOL UBEDA

Usurbil, etxebizitzak egiteko herri egokia

N. Etxebizitzek ere lurraldearen antolamenduan eragiten dute. Etxe ugari aurreikusi da Usurbilen. Beste herrietan ere joera hori nagusitzen ari al da?

M. A. Usurbil Donostialdeko eskualdean kokatzen da, eta eskualde honetan jada nabaria da herri batzuk ez dituztela lur egokiak hazteko. Nabaria da Pasaia, Errenterriak eta neurri txikiagoan, Donostiak, ez daukatela lurak. Beraz eskualde honek hazi behar badu, egia da egokiagoak direla gaur egun Usurbil, Oiartzun edo Hondarribia bezalako herriak. Etxebizitzak planteatzekotan, oraindik lur egokiak dituzten herriak dira.

“Euskal Hiriaren kontzeptuak ez du desarrollismoarekin zerikusirik”

NOAUA! Bernardo Atxagak esana: “Euskal Herri osoa hiritartzea nahi nuke, hori gertatu ezean ez delako leku interesgarri izango. Eta horrek egiten nau, beharbada, desarrollista, eta egia da. Beti dago akatsen bat, ez dago teoria garden politik”. Ados al zaude?

Martin Arregi. Euskal Hiria definizioa bultzatzen dugu urtero, kongresu baten bidez. Baina nik ez nuke lotuko Euskal Hiria Bernardo Atxagak aipatzen duen desarrollismo horrekin. Gure ustez, Euskal Hiriaren kontzeptuak ez du desarrollismoarekin zerikusirik; ez du esan nahi hormigoiz bete behar dugula erkidego osoa. Filosofiatik ere badu Euskal Hiriarenak. Gaur egungo Europan egia da herrien artean eta lurraldeen artean kooperazio edo laguntza handia dagoela, baina baita konpetentzia handia ere. Guk erkidego bezala, lurralde txiki honetan, denok bat egin behar dugula uste dugu. Azkenean asmo nagusia zera da: Europa mailan gure irudia Euskadi, Euskal Herria, Euskal Hiria gisa irudikatzea.

Bat nator Euskal Hiria delako ideia horrekin, baina horrek ez du esan nahi dena hiria izan behar duenik.

N. Ruper Ordorika abeslariari entzun nion behin, oso eroso egiten zitzaioela Euskal Herrian bizitzea, ordubetea edozein hiriburutara iristeko aukera zuelako.

M. A. Hori da azkenean Euskal Hiriaren ideia. Hiri bezala funtziona-

tzen dugula. Gaur egun oso normala dela pertsona bat Donostian bizitzea, Gasteizen lan egitea eta Bilbora joatea ostiral gaua edo larunbat gaua pasatzera.

Azkenean, Euskal Hiriaren ideia hori da, dena batu dezagun, dena hiri handi baten gisa irudikatu dezagun.

Amerikako Estatu Batuetako Los Angeles hiriak, esate baterako, gure erkidegoaren azalera antzekoa dauka baina biztanle gehiago ditu. Guk 7.200 kilometro karratu dauzkagu erkidegoan, hiru herrialdeetan. Ba ideia hori da, funtzionatu dezagun hiri handi baten gisan.



“EUSKAL HIRIA” EUSKAL HERRIA BILTZEN DUEN DEFINIZIOA LITZATEKE.

“Trenari lehentasuna eman behar zaio”

N. Errepideen egoera, ordea, ez da oso lagungarria. Ez dakit maiz tokatu zaizkizun etenaldiak, istripuak... Hori ere kezka iturri izango da, ezta?

M. A. Hori kezka handienetako bat da, martxa honetan jarraitzen badugu ezinezkoa bihurtuko zaigu errepideetan ibiltzea, gero eta kotxe gehiago dagoelako.

Guri gertatzen zaigu, gainera, Europako pasabidea bertan dugula. Madril-Paris edo Paris-Lisboa errepideetako trafikoa sekulakoa da. Nik hori ia egunero ikusten dut, Gasteiza lanera joatean. Zentzu horretan, neurriak hartzen hasi beharko dugu. Dudarik gabe, trenari eman behar zaio lehentasuna. Eta Madril-Paris edo Paris-Lisboa errepideetako trafikoa handia dela kontuan hartuta, hori ere nolabait antolatuta beharrekoa izango da.

N. Abiadura Handiko Trenak trafiko hori guztia arinduko lukeela uste al duzu?

M. A. Nik uste dut baietz, merkantziatiko Abiadura Handiko Trenea izango delako eta nolabait merkantzia asko trenbidearen bidez bideratzen baditugu, dudarik gabe asko arinduko dela trafikoa. Baita barkuen erabileraren bidez. Merkantziak nolabait portuetara ailegatzen badira, eta portuetatik trenean ateratzeko moduan baldin bagaude, uste dut neurri handi batean jaitsiko litzatekeela errepideetako trafikoa.

Baina errepideetan ere agian beste neurri batzuk hartu beharko dira, trafikoa nolabait peajeen bidez erregulatuz. Zerbait egin beharra dago behintzat. Trafiko ezbeharrak eguneroko gauza baitira.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea. 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05



Aitor Alkorta:

“Ez dut eskulturarako izugarritzko zaletasuna”

Sagardo Egunaren XXV. urteurrena zela eta, Aitor Alkortari eskultura bat egin zezan eskatu zioten Sagardo Egunaren Lagunak taldekoak. Eskultura hori begibistan izan da Sutegin maiatzean zehar zabalik izan den erakusketan. Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen esanetan, artelan horrekin bete-betean asmatu du Aitorrek. Eskulturaren esanahia argitzekotan egilearekin hitz egiten aritu gara.

NOAUA! Arterako afizioa nondik datorkizu?

Aitor Alkorta. Beno, ez da afizioa. Lan bat egiteko esan zidaten eta denbora neukan. Beraiek eman zidaten ideiatik abiatu nintzen, baina ez daukat horrelako afiziorik, gutxi egin ditut horrelakoak. Ni izatez arotza naiz.

N. Ze esanahi dauka Sagardo Egunerako osatu zenuen eskulturak?

A. A. Enbor batekin hogeita bost baso eusteko lan bat egitea eskatu zidaten. Ideiak etortzen hasi zitzaizkidan: Sagardo Eguna, sagardoa, sagarrondoak... Gauzak lotzen hasi nintzen. Txalaparta ere lotu nuen sagardoarekin, sagarrondoaren polinizazioan sartzen diren kontu guztiak... Eta gero, noski, gizonaren esku-hartzea sagardoa egiterakoan. Gizonaren esku-hartzea lana bera da. Txalpartarena beste era batera landu nuen: eskulturaren azpialdea zaldi baten hanka da, txalaparta beti lotu izan baita zaldi baten lau hanken soinuarekin. Eta gero txori batzuk ere badaude hortik...

N. Enkargu gehiago jaso al dituzu erakusketaz geroztik?

A. A. Ez, eta orain gainera ez daukat horrelako gogorik. Egia esan, ondo etorri zitzaidan eskatu zidatenean. Aste Santuen aurretik, lehen lan egiten nuen tailerra itxi egin zuten. Denbora asko eramaten du lan hori egiteak, eta orain behintzat zaila izango nuke.

N. Autodidakta al zara ala nonbait ikasi duzu?

A. A. Zazpi urte egon nintzen mekanika ikasten eta, horren ondoren, prentsa bat eta mazoa hartu eta tailatzen eta errestituratu hasi nintzen, nire kontutik. Eta gero, beti pasatzen da, egur bat pasa behar dela tailer batera eta bestera; eta batekin eta bestearekin hitz eginez...

N. Egurra lantzen duen artistaren bat gustuko al duzu?

A. A. Gorriti bera asko gustatzen zait. Eta beste frantziar bat ere bai, Jose Le



AUTODIDAKTA BERA, HANDIK ETA HEMENDIK IKASTEN JOAN DA.

Piez. Oso kuriozosa da lana nola egiten duen, ez dakit nola sortuko zitzaion txorien soinuaren ideia hori.

NEREA KORTA _____

Txorien kantu eta guzti

Artelanaren oinarria enbor bat da, gaztain-enbor bat, eta huntzaren moduko tira bat dauka. Bertan zirrikitu batzuk ditu eta horietan eskua pasatzerakoan txorien kantuaren antzeko zerbait entzuten da: “Lana beraren ideia nirea izan zen, baina txoriaren asunto hori ‘Oihana Auhenska’ tik dator. Joxean Artzeren ‘Oihana Auhenska’ liburutik talde bat sortu zen gero, eta Parisko artista bat zegoen tartean. Artista hark beste lan batzuk ekarri zituen, eta zirrikitu horiek beragandik ikasitakoak dira. Kontua da eskua pixka bat lurrunarekin busti eta eskua zirrikituetatik pasatzean txori kantuak entzuten direla”, azaldu digu Aitor Alkortak.



ENBORRAK HOGEITA BOST EDALONTZI HELTZEN DITU.

Udarregi Ikastolaren egunean, oinetako arinak jantzi eta aire, aire!

Ate joka dugu Udarregi Ikastolaren eguna. Urtero bezala, ekainaren lehenengo igandean ospatuko da, baina ekitaldi gehiago ere iragarri dira. Ostegunean, ikasle batzuk kantaldia eskainiko dute Sutegin eta larunbatean, antzerki saio bat ikusteko aukera izango dute.

Ekainaren 4an ospatuko da Udarregi Eguna baina, hala ere, egun handia baino lehen izango da zer ikusirik. Esaterako, ekainaren 1ean osteguna, HHko 5 urtekoen eta LHko 5. mailako ikasleen kantaldia izango da Sutegiko udal aretoan, arratsaldeko 18:30ean. Gogoratu sarrera mugatua izango dela lekuagatik.

Ekainaren 3an larunbata, berriz, LH3tik LH6ra bitarteko ikasleentzat antzerkia egongo da toki berean. Yolanda Arrietaren zuzendaritzapean "Antzerki sketchak urteko lanaren erakusketa gisa" ikusi ahal izango dira goizeko 11:30ean.

Esnadeia eta gero jokoak

Eta igandean, ekainaren 4an, urtero bezala ikastolako haur guztiak bilduko dira goizetik joko eta ekintza dibertigarrietan murgiltzeko. Goizeko 9:00etan txistularien esnadeiarekin hasiko da festa eta, berehala, LH eta DBHko ikasleen jokoak. 11:30ak arte iraungo dute jokoek. Ez ahaztu, hala ere, 10:00etatik 13:30era zabalik egongo dela ikasle-



EKAINAREN 4AN, IKASTOLAREN EGUNEAN, PATXI PEREZ ARITUKO DA.

en eskularen erakusketa Udarregin bertan.

Bazkarirako txartelak aurretik erosi behar dira

12:00etan kiroldegira hurbiltzen bazarete, HHko umeen jaialdia ikusteko aukera izango duzue: "Usurbil Erdi Aroan". Festa ez da horrekin amaituko, hala ere. 14:30ean herri bazkaria egingo da pilotalekuan, baina gogoratu, bazkarirako txartelak aurretik erosi beharko direla ikastolako idazkaritzan. Helduen txartelak 20 euro balio du eta ikasleenak 9 euro. Amaitzeko, 16:00etatik 18:00etara, Patxi Perezek bere doinuekin dantzan jarriko duela jende gutzia.

Datorren saioa, jaietan, uztailaren 1ean

Beteka taldeak lehen zuzeneko eskaini zuen aurreko larunbatean. Soinurbil Musika Astearen baitan antolatu zen batukada saio hori eta izugarrizko arrakasta izan zuen usurbilgo perkusio talde honek. Datorren saioa uztailaren 1ean eskainiko dute.



Karaokea Santuenean

Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua aurrera doa. Aurreko larunbatean Santuenean bildu zirenak euskal karaokean parte hartzeko aukera izan zuten.



Mariskadaren zenbakia

Sagardo Egunean, gestorek mariskada zozketatu zuten. Zenbaki irabazlea hauxe izan zen: 1737.

Ekainaren 3an Pello Añorga Kalezarren

Ekainaren 3an larunbata, Kalezarren arituko da Pello Añorga ipuin kontalaria. Arratsaldeko 17:00etan Haur Eskolako jangelan. Gogoan izan 4 urtetik gorako haurrentzat izango dela emanaldia.


Ekainaren 10ean jolas txokoa Aginagan

Abilezia eta trebetasuna beharko da Kilimiska animazio taldeak antolatuko duen jolas txokoa parte hartzeko. Ekainaren 10ean larunbata, Aginagako pilotaleku berrian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Ekainaren 15ean Pirritx eta Porrotx

Pirritx, Porrotx eta Katxiporreta taldea Usurbilen izango dira ekainaren 15ean. Herriko frontoian arituko dira arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Ekitaldi honekin amaituko da aurtengo Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua.

Hitz-gegidunak !! _____

	Pl, zuhaixka mota	▼	Emakume izena	▼	Hegazti mota	▼	Izaki biziduna	▼	Basati
	Anaiaren semeak		Koipea		Etsaia, aurkaria		Europar Batasuna	▶	
	▶		▼		▼		Aitorpena		▼
	* DEITURA	▶					▼		
	Lege								
Doan eman	▼	Jardun	▶	▼	Gizon izena	▶			
Otana		* IZENA			Röntgen				
▶		▼			▼				
Senidea	▶				Iodoa	▶	Ogi, hitz elkarketan	▶	
Baratzea					Seguru		Kontso-nantea		Garaia
▶					Intsektu mota	▶	▼		
					Bihi	▼			▼
Idi, hitz elkarketan	▶		Portua	▶	▼		Jatorri atzizkia	▶	
Arnas ezak hila			Otx!				Einsteinioa		
▶		▼	Lutezioa	▶		Ukatzeko	▶	▼	Oxigenoa
			Boroa			Kontso-nantea			50
Unibertsoari dagokiona	▶		▼			▼			▼

Argazkikoa: marrazkilaria usurbildarra (soluzioa 17. orrialdean).

Egilea: LUMA.

t r r k usk l ntz t kultur lk rt t k

J UE E GILE EH U

Kultur lk rt r n h n t k m n r tu t ku tz k

Eskizur

- ♦ Hst r...
- ♦ Eusk r... m n r tz ntz z
- ♦ Eantz... r r k s t u t
- ♦ J n... k l s u n t z t l k
- ♦ Eusk l l r r n z u r k k
- ♦ L n... r u n t l l u t

Irrik

- ♦ G z z n z l k l r n t n
- ♦ H z k u n z k
- ♦ C s r k l n r u r t n

- ♦ E t r u t z n r t k r l
- ♦ Eusk l l r r z u t z l n t k

I zur Curriculum V t
h n k h l r

J UE E GILE

st kutx

2 .15 M S -VILL N

Eskolarteko eskubaloiairen gailurrean

Udarregi ikastolako eskubaloi taldeak emaitza bikainak lortzen ari dira aurtengo denboraldian. Infantil mailako neskek Euskadiko Eskolarteko txapelketako azken partida jokatu dute larunbatean Tolosan, mutilak Gipuzkoako azpitxapeldunak izan dira eta alebin mailan, mutilek nahiz neskek, Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatu dituzte laster.

Infantil mailako neskek denboraldi honetan orain arte jokatu dituzten neurketa guztiak irabazi dituzte. Gipuzkoako eskolarteko txapelketa eskuratu zuten duela gutxi eta datorren larunbatean Euskadiko txapelketako finala jokatu dute. Gipuzkoa mailan ia ez dute areririk izan. Andoaingo ikastolak eman dizkie lan gehien, baina finalean erraz nagusitu ziren herriko neskek.

Taldeko entrenatzaile eta eskubaloiko koordinatzailea den Martin Larrañagak esandakoaren arabera azken hiru urtetan bi neurketa bakarrik galdu ditu neska talde honek. "Duela 2 urte, alebin mailako finala galdu genuen luzapenean eta iaz, berriz, infantil mailakoa. Alde horretatik ezin zaie askoz gehiago eskatu". Larunbatean 12.00etan Euskadiko Eskolarteko txapelketako azken partida jokatu dute Tolosako Eskolapio ikastetxekeo pistan bizkaitarren aurka eta Martinen esanetan garaile izateko aukerak badituzte.

Momentu honetan, Gipuzkoan, nesken eskubaloian maila gutxiko taldeak daude Martinen esanetan. "Futbolarekin alderatuz askoz neska gutxiagok jokatzen dute eskubaloian eta kirol maila asko jaisiten da". Hala ere, infantil mailako neskek maila oso onean daudela argi utzi nahi du. "Guk pasa den urtean Granollers-eko txapelketan 4 golen abantailaz galdu genuen aurrean kadete mailako Espainiako txapelketan finala jokatu duen Ibiza taldearen aurka. Kadete mailara igo diren neska gutxi batzuk ez beste guztiak aurrean infantil mailan jokatzen ari direnak ziren orduan eta maila ona zutela argi utzi zuten orduan ere. Horrez gain, Zarautz ere Espainiako lau onenen artean egon da eta neska talde horrekin parean ibili ginen pasa den urteko



TALDE GUZTIEK MAILA ONA ERAKUTSI DUTE DENBORALDIAN ZEHAR.

Gipuzkoako txapelketako finaleko lehenengo zatian aurrean tudentan neskekin". Hiru jokalarik ez ezik beste guztiak infantil mailako azken urtekoak dira.

Azken urteetan eskubaloian gaztetxoan mailan neskekin egiten ari diren lana adierazgarria da. Duela 3 urte infantil mailako Gipuzkoako eskolarteko finala jokatu zuten orain kadete mailan dabilen neskek eta iaz alebin mailako taldeak finalerdiak penalti bidez galdu zuten. "Udarregiko neskek azken urteetan maila bikaina ematen ari dira, belaunaldi ona izan dugu eta atzetik datozenak ere indartsu datoz". Izan ere, alebin mailako neskek larunbatean 11.00etan jokatu dute Oiardo kiroldegian ligako azken partida Aitor Ikastolako taldearen aurka, baina finalerdietarako txartela eskuratuta dute dagoeneko.

Talde-lan handia

Infantil mailako mutilek ere lan ona egin dute aurrean. Bi talde izan dituzte, lehenengo urtekoak eta bigarren urtekoak, eta azken hauek Gipuzkoako txapelketako 2. postua eskuratu zuten duela bi aste. Martinen esanetan Haritz Holgado eta Zuhaitz Lizaso entrenatzaileek lan bikaina egin dute talde honekin. "Iaz talde polita zegoela ikusi zen, baina aurrean entrenatzaileek talde sendoa bihurtzea lortu dute. Jokalarietatik inor ez da nabarmentzen. Talde-lan handia egiten dute eta Gipuzkoako txapelketako finala galdu bazuten ere, talde honen bilakaera nabarmena izan da".

Denboraldi osoan zehar 3 partida

bakarrik galdu dituzte. Gipuzkoako talde onenak zeuden ligaxkan bi, eta biak gol bategatik, eta aurrez aipatutako finala. "Hasiera batean ez genuen honelakorik espero. Harro egoteko moduko ezusteko positiboa izan da talde honen aurtengo denboraldia, Eibar, Zarautz, Irun... eskubaloi tradizio handiko herrietako taldeak gaituzte baitituzte".

Alebin mailan, mutilak ere Gipuzkoako onenen artean daude. Larunbatean 10.00etan jokatu dute Oiardon Gipuzkoako txapelketan ligako azken partida Arizmendi taldearen aurka, baina dagoeneko finalerdietara sailkatzea lortu dute.

Entrenatzaileak ere, bikain

Eskubaloian talde gazte bat egiten ari den lan onaren adierazgarri dira aurtengo emaitza hauek. Martin Larrañaga da eskolarteko koordinatzailea, baina honek eskolarteko mailan dabilen entrenatzaileen lana goraiatu nahi izan du. "Jon Begiristain, Ekhi Arrieta, Eneko Urdangarin, Eñaut Lasarte, Haritz Holgado eta Zuhaitz Lizaso izan dira nirekin batera aurrean entrenatzaile lanean ari direnak eta gazteak izan arren izugarrizko lan ona egin dute".

JOSU ARANBERRI

Herri Arteko pilota txapelketa

Azken laurdenetako joaneko partidetan 2-1 galdu zuten Usurbilek Azkoitiaren aurka. Asteburu honetan Usurbilen jokatu dute pilotalekuan itzuliko neurketak.

Aholkua !!

Formula 1 eta Herbalife etxeko gainontzeko produktuak ez dira "produktu miragileak"

Aurreko asteko NOAUA!n, "Produktu miragileek miraririk ez" titularraren albiste argitaratu genuen. Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkartearen idatzi bat egokitu genuen albiste horretan. Argazkia, ordea, aldamenen ageri den horixe bera, Internet saretik jaso genuen. Gure akatsa izan zen "Produktu miragileek miraririk ez" artikulua eta irudi hori elkar-lotzea, Formula 1 eta Herbalife etxearen produktuak produktu miragile ez diren. Egindako akatsa aintzakotzat hartzen dugu eta hanka-sartzea zuzendu asmoz, Herbalife etxeko banatzaile den Jon Salegiren hitzak bildu ditugu.

Gorputzari behar dituen aminoazido guztiak ematen dizkio Formula 1 produktuak. Proteinen konponenteak dira aminoazidoak. Haragi, arrai, arrautza eta esnearen bidez hornitzen dugu proteinaz gure gorputza. Baina koipe handia dute elikagai horiek. Formula 1 delakoak gorputzak behar dituen oinarriko aminoazidoak ditu, baita bitamina, mineral eta karbohidrato basikoak ere.

Jon Salegik azaldu digunez, "beti esaten dugu honek ez duela ezer sendatzen. Ni ez naiz medikua, eta hauek

ez dira medikamenduak, bestela ezin nuke hau saldu. Nik saltzen dudana ez da produktu miragilea, hau jana da. Ez dute miraririk egiten. Baina gorputza ondo elikatuta badago, gorputza gaixotasun pilo bati aurre egiteko gai da, beti ere gorputza ondo orekatuta badago". Eta Herbalife produktuek oreka hori lortzen laguntzen dutela esan digu Jon Salegik.

Soja-proteina naturalekin egina

Gaixotasun asko elikadura kaxkarrarekin lotuta daude. Herbalife etxeko produktuek gorputzari behar dituen nutriente guztiak ematen dizkiote. Belarretan oinarrituta baitaude Jon Salegik banatzen dituen produktuak. Bada arrainarekin, omega 3 delakoarekin egindako produktu bat; baina gainontzekoak soja-proteina naturalean oinarrituta daude. Beraz, jatorri begetala dute.

50 milioi bezero

Herbalife etxeko produktuen bezeroak mundu osoan 50 miloi izango dira. Jon Salegik adierazi digunez, "produktu hauek ez dira ez telebistan, ez irradian, ez aldizkaritan ageri. 25 urteotan bezero kopurua hainbeste hazi bada, jana hauek emaitza onak



eman dituztelako izan da". Honen ondorioz, ahoz ahoko transmisio bidez hazi da bezero kopurua hainbeste. Produktuak banatzeaz gain, segimendu oso bat egiten zaio bezeroari. Segimendu hori, gainera, doan egiten da.

Baina Herbalife etxeko banatzaile honek argi utzi nahi du "hau ez dela dieta bat. Hau jana da", osagarri modukoa.

Nobel saridun baten babesean

Herbalife etxearen kontseilu zientifikoan Louis Ignarro doktorea dago, 1998an Nobel saria jaso zuen medikua. "Nobel saridun bat lanean duen enpresa pribatu bakarra izango da hauxe", Jon Salegiren ahotan.

Informazio gehiago jaso nahi duenak Jon Salegiren telefono zenbaki honetara dei dezake: 637 228 860.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 1, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 2, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 3, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 4, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 5, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 6, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 7, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 8, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 9, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 10, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 11, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Agenda !!

Ekainak 1, osteguna

HH5 eta LH6ko ikasleen kantaldia Sutegin, 18:30ean.

Ekainak 2, ostirala

- Gipuzkoako III Gomazko Paletako Txapelketa Herrikoia. 20:00etan Aginagako pilotalekuan 3. eta 4. postua (Agiña-Tolosa) eta finala (Segura-Lasarte-Oria).

Ekainak 3, larunbata

- LH3tik LH6ra bitarteko ikasleentzat antzerkia 11:30ean Sutegin.
- Pello Añorga ipuin kontalaria, 17:00etan Kalezargo Haur Eskolan.

Ekainak 4, igandea

Ikastolaren Eguna (egitaraua 13. or).

Ekainak 5/ ekainak 11

Aste Berdeari buruzko erakusketa Sutegin, 18:00etatik 21:00etara.


Ekainak 7, asteazkena

Goizeko 9:00etan olio erabilia eta beste hainbat material biltzen dituen San Markos Mankomunitateko ibilgailua frontoi atzean.

Ekainak 10, larunbata

Kilimiska Animazio Taldearen jolas txokoa, 17:00etan Aginagako frontoian.

Soluzioa !!



Anton Olataga

Egin kontu !!

Aste honetan hasiko da Jokin Errasti eta Oihana Lizasoren aurkako epaiketa

E kainaren 1ean hasiko da Jokin Errasti eta Oihana Lizasoren aurkako epaiketa. EpaiKETARA hurbiltzeko autobusa antolatu da Usurbilen, baina autobusa ekainaren 8an abiatuko da Madril aldera.

Ekainaren 8an, goizeko 10:00etan aterako da autobusa eta arratsaldeko 16:30ean entzutegira sartzeko asmoarekin. Autobusean izena emateko orriak topatuko dituzue ohiko tokietan.

2002ko irailaren 30ean atxilotu



IAZ, BI PRESOEN BAKARTZEA SALATZEKO EGINDAKO BILKURA.

zituzten Jokin Errasti eta Oihana Lizaso. Beraz, ia lau urte egin dituzte espetxean.

Egin kontu !!

Telefono bidezko inkestak egingo dira egun hauetan gure herrian

E kainaren 1etik 25era Ikertalde Grupo Consultor SA enpresak telefono bidezko inkestak egingo ditu Usurbilen eta baita Buruntzaldeko gainontzeko herrietan ere. Tokiko Hedabideentzako Plan Estrategikoarekin bat dator inkesta hau. Tokian tokiko hedabideei buruzko galdetegi hau ekainaren



1ean ostegunarekin hasiko da.

Hernani, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Astigarraga eta Usurbilgo udal Euskara Batzordeen ekimenez egingo da inkesta hau eta Kronika, Txintxarri, Aiurri eta NOAUA! herri aldizkariekin elkarlanean prestatua izan da galdetegia.

Beraz, Ikertalderen izenean dei bat jasotzen baduzu, jakin ezazu inkesta hori NOAUA!k ere sustatu duen ekimena dela.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

agitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartzan gertu. Guztiz jantzi-ta, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefonora gustora entzungo dut eta.
- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz

zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.

- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehentik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Aginagako Manterola gasolindegian oporretako ordezkapenerako pertsona bat behar da, ekainetik urrira lan egiteko. Interesatuak curriculumuma argazki batekin utzi gasolindegian, edota deitu 943 36 13 95 zenbakira (Garbiñe).
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza. 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 6 urteko neska baten txandal txaketa berde bat galdu dugu Txirrista inguruan. Aurkitu duenak deitu dezala: 658723426.
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Euskadiko selekziozko txandalaren jertsea galdu zait, frontoi inguruan. Aurkitu duenak deitu 943 366 845.
- Urrezko pultsera bat galdu zait Artzabalgo

frontoi inguruan. Aurkitzen duenak NOAUA!ra eraman dezala. Eskupekoa eman-go da.

- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroi pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi-ko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan!

Neskato jatorra
Gimnasta bikaina
12 urte bete dituen
Arsuaga`tar Oihana.
Muxu handi bat eta
zorianak ekainaren 2an!



Zorionak prexioxi!!
Ekainaren 2an zure
lehenengo urtea egingo
duzu ta munduko
muxu handiena familia
guztiaren partez.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL
ileapaindegia
mistoa
943361951

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

txirristra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak
TABERNA

Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak




Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetu^{*} gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

EKAINAREN 5a INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Urtzen ari naiz

Eta nirekin urtuko dira hondartza guztiak

Hondarriola, Zurriola,
Kortxa, Ondarroa,
Orbi, Zabalza, Cateria,
Zumai, Deba, Mutxu,
Arrigorta, Karrantza,
Iantza, Ogea, Ea,
Laga, Iwida, Kanela,
Kanalzoa, San Antonio,
Laldotxu, Tolosa,
Hondarribia, Zumaia,
Aritzatxu, Dako,
Amintza, Gorria,
Pleantza, Muntola,
Berrika, Menakoa,
Arietara, Bannatxo,
Gorria, Ogea, Ixile,
Arrigorta, Ereaga, Las
Aracas, Ziorbona, La
Arana.



Ingurumena.net
hurrez hurrez

